

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE
**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE**
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Mendekotasun Agentziak eta Euskadiko Kutxak mendeko pertsonentzako laguntzaren izapidetza erraztea adostu dute

Bi erakundeek sinatutako hitzarmenari esker, izapidetza-denbora laburtzeaz gain, eskatzaileek ez dituzte joan-etorriak egin beharko

Viernes, 20 de mayo de 2011

Nafarroako Mendekotasun Agentziak (NMA) eta Euskadiko Kutxak sinatutako hitzarmenaren bidez, mendeko pertsonentzako laguntzak eskatzeko izapideak bizkortu eta eskatzaileei trabak kenduko zaizkie.

Hitzarmena sinatu dute Alfonso Uitz Alonso Euskadiko Kutxako marketin zuzendariak eta Begoña Rodríguez Marcos NMAko zuzendari kudeatzaileak.

Hitzarmena bi erakundeek mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin duten lankidetzaren eta konpromisoaren emaitza da eta NMAk espedienteen izapidetza bizkortzeko hartutako neurrien barruan sartzen da.

Hitzarmenak funtsezko hiru helburu ditu laguntzak eskatzen dituzten pertsonen dokumentazioa gehitzeari lotuta. Dokumentazio hori nahitaezkoa da bitarteko horietarako sarbidean duten parte-hartze ekonomikoa zehazteko, hau da, kopagoa.

Lehenengo eta behin, sinatutako hitzarmena dela bide, eskatzaileak ez du banku-entitatera joan behar eskaera aurrez aurre egiteko, orain Nafarroako Mendekotasun Agentziak eta Euskadiko Kutxak zuzenean egingo dute eta. Bigarren, hitzarmenak izapidetza-epeak bizkortuko ditu, banku-entitatearekin prozedura informatiko baten bidez egingo dira eta. Eta, amaitzeko, prozedura berriari esker, eskatzaileek banku-entitateari ordaintzen zioten tasa aurreztuko dute, orain doan egingo da eta.

Hitzarmen hori Nafarroako Mendekotasun Agentziak espedienteen izapidetzan denbora eta dirua aurrezteko joan den azaroaren 5ean Caja Navarrarekin sinatutako hitzarmenari gehitzen zaio. Hitzarmen honekin, denbora eta dirua aurreztea erabiltzaile gehiagorengana zabalduko da.



Mendekoentzako laguntzak errazteko lankidetzaren hitzarmena: Alfonso Uitz Alonso Euskadiko Kutxatik eta Begoña Rodríguez Marcos Nafarroako Mendekotasun Agentziatik.

Nafarroako Agentziaren xedea lankidetzaren esparru hau Nafarroako beste banku-entitate batzuetara hedatzea da.